



Arartekoaren 2015R-2659-14 Ebazpena, 2015eko urriaren 19koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko erabakia.

Aurrekariak

2014ko abenduaren 30ean, XXX jaunak bide telematikoz aurkeztutako kexa bat onartu zen izapidetzeko. Kexaren arazoia Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarriko eskubidea ukatu izana zen.

Kexa izapidetzen hasteko nahikoa informaziorik ez genuenez, kexagilearengana jo genuen, 15 eguneko epean, eskubidearen ukapenari buruzko dokumentuak helaraz ziezazkigun.

2015eko urtarrilaren 16an jaso zen erakunde honetako erregistroan kexagilearen idazki bat, eta horrekin batera, eskatutako informazioa.

Kexagileak jakinarazi zigunez, Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-sarrerak bermatzeko laguntzarako eskubidea azkendu zion, EAEn erroldatuta egoteari eta benetan bizi izateari buruzko baldintzak betetzen zituenez, diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso ahal izango zuela ulertu zuelako. Ondorioz, 2014ko urriaren 3an, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarriko eskubidea aitortzea eskatu zuen.

Hala ere, abenduaren 20an, Lanbidek eskubidea ukatzea erabaki zuen. Dirudienez, kexagileak EAEn benetan bizi izateari buruzko baldintza ez betetzea zen erabakiaren arazoia.

Kexagilea eskubidea ukatzeko ebazpenarekin ados ez zegoenez, aukerako berraztertze-errekurtso bat aurkeztu zuen, urtarrilaren 15ean.

Azkenean, 2015eko urtarrilaren 26an, lehen aldiz eskatu zuen Arartekoak espediente honi buruzko informazioa. Zehazki, zenbait gogoeta helarazi genizkion Lanbideri, erakunde autonomo horrek diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta





etxebizitzarako prestazio osagarriko eskubidea ukatzeko aplikatu zuen irizpidearekin ados ez geundela adierazteko asmoz.

Gure informazio-eskaerari erantzunik jaso ez genuenez, 2015eko martxoaren 9an, errekerimendu bat egin genuen, aipatutako epean eskaerari erantzuteko betebeharra gogorarazte aldera.

Apirilaren 17an, erakunde honetan Lanbideren idazki bat jaso genuen. Bertan, prestazioetarako eskubidea ukatzeko erabakiari eusten ziola adierazi zuen Lanbideek.

Azkenik, duela gutxi jaso genuen mezuaren bidez, kexagileak jakinarazi zigun bere anaia 2015eko urtarrilean lanean hasi zela; hortaz, kide baten laneko diru-sarrerak jasotzen ditu bizikidetzaren unitate horrek.

Hortaz, beharrezko egitate- eta zuzenbide-elementuak dauzkagula uste dugunez, honako gogoetak egin ditugu:

Gogoetak

1. 2014ko urriaren 3an, kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarriko eskubidea aitortzea eskatu zuen, diru-sarrerak bermatzeko laguntza azkendu ziotenean. Lanbideek bi hilabeteko epean eman beharko luke ebazpena, hala ere, abenduaren 20ra arte ez zuen eskubidea ukatzearen berri eman.

Abenduaren 23ko 18/2008 Legean jasotako eta azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutako 62.2 artikuluari jarraiki, kontuan hartu behar da:

- *"Ebazpena emateko organo eskudunak prestazioa onartzeko edo ukatzeko ebazpena gehienez ere bi hilabeteko epean emango du, dagokion eskabidea aurkezten denetik kontaktzen hasita. Epea amaitzen bada berariazko ebazpenik eman gabe, eskatutakoa diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria badira, eman egin direla ulertuko da."*





Egiaztatu genuenez, kexagileak eskaera aurkeztu zuenetik –urriaren 3an– Lanbidek eskubidea ukatu zuen ebazpena eman arte –abenduaren 20an– bi hilabete baino denbora gehiago igaro zen.

2. Hala ere, lehen aipatu bezala, abenduaren 20ko ebazpenaren bidez, eskubidea ukatzea erabaki zuen Lanbidek. Ebazpenean jasota zegoen arrazoia hauxe zen:

- *"No cumplir el requisito de residencia efectiva durante los últimos 3 años."* (sic)

Espedientean dauden dokumentuak ikusita, egiaztatu dugu Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuak, 2014ko ekainaren 25eko ebazpenaren bidez, aitortu ziola kexagileari diru-sarrerak bermatzeko laguntza jasotzeko eskubidea. Ekainaren 19ko 31/2012 Foru Dekretuko 8. artikularekin bat, baldintza jakin batzuk bete behar dira, laguntzarako eskubidea izateko. Zehazki, ekainaren 19ko 31/2012 Foru Dekretuko 8.3 artikulua, uztailaren 8ko 22/2014 Foru Dekretuak aldatuta, zera eskatzen du:

"Autonomia Erkidegoko udalerriren batean 12 hilabetez gutxienez erroldatuta egon eta benetan bizitzea."

Paradoxa badirudi ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuak, Lanbidek ez bezala, ulertu zuen kexagileak betetzen zuela EAEn erroldatuta egoteari eta benetan bizi izateari buruzko baldintza, eta ondorioz, eman zion 2014an diru-sarrerak bermatzeko laguntza. Azkenik, prestaziorako eskubidea azkendu zitzaion, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskatzeko baldintzak betetzen zituela ikusi zelako, hain zuzen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuak, urriaren 27ko ebazpenean, honela arrazoitu zuen eskubidea azkentzea:

- *"Laguntzaren onuradun den elkarbizitza unitateko kideetatik edonork Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratu ahal izateko erroldatzeari*





edota/eta bizitzen egon beharrekoari buruz ezarrita dagoen baldintza betetzea (31/2012 Foru Dekretuko 22.1.j artikulua)."

3. Erakunde honetan apirilaren 17an jaso genuen erantzunean, Lanbidek adierazi zuen kexagileak ez zuela behar bezala egiaztatu non bizi zen 2012/10/01etik 2013/09/23ra bitarteko aldian. Hala ere, abenduaren 20ko ebazpenean, Lanbidek ez zuen ezer esan bere ustez benetako bizilekua egiaztatu gabe zegoen aldi horren inguruan. Ondorioz, kexagilea defentsagabeziako egoeran geratzeko arriskua sortu da, ez baitzekien zehazki zein zen Lanbidek zalantzan jarritako aldi hura.

Erakunde hau behin baino gehiagotan agertu da egintza administratiboak arazoitzeko beharraren alde, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 54. artikulua xedatutakoa betearazteko asmoz.

Urtarrilaren 20ko 1/2014 Gomendio Orokorrean¹ berariaz aztertu zen alderdi hori jada. Gomendioaren arabera, zehazki, eskubideak mugatzen dituzten ebazpenetan jaso egin behar da hartutako neurria berariaz arazoitzen duen legezko agindua (edo aginduak), eta, egitateen deskribapenari dagokionez, saihestu behar dira erreferentzia estandarizatuak.

Aztertzen ari garen kasuan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea ukatzeko ebazpenean ez zegoen legezko agindu bati buruzko aipamenik. Era berean, ez zen batere aipatu Lanbidek zalantzan jarritako aldia, EAEn benetan bizi izateari buruzko baldintza dela eta.

4. Kexagilearen benetako bizilekuari dagokionez, 2011/09/28tik etengabe Irunen erroldatuta egon dela egiaztatu dugu. Ildo horretan esan beharra dago udalerrri batean erroldatuta egoteak, besteak beste, udalerrri horretan benetan bizi dela agerian jartzen duela (Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16.1 artikulua). Presuntzio

¹ http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3269_1.pdf



hori *iuris tantum* erakoa da, hortaz, hura indargabetzeko frogak aurkeztu ahal dira.

Izan ere, kexagileak pasaportearen fotokopiak aurkeztuta, egiaztatu zuen 2012 eta 2013 artean bere jatorrizko herrialdera bidaiatu zuela eta guztira 69 egun pasatu zituela bertan. Horietako 15 eguneko aldiaren berri Estatuko Enplegu-zerbitzu Publikoari (SEPE-ri) aldez aurretik eman zion, hau da, zerbitzu horretatik prestazioak jasotzen zituenean, bete zituen bidaiak jakinarazteko betebeharra.

Gure iritziz, bi hilabete baino zertxobait gehiago modu ez-jarraituan Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo igarotzeak ez du hausten EAEn bizi izatearen jarraitutasuna, ezta errolda-erregistroan jasotako inskripzioaren presuntzioa ere. Gainera, kontuan hartu behar da ezin dela betebeharra ez betetzerik egon, kexagileak artean ez baitzuen diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu, beraz, ezin zitzaion eskatu eskubidearen titulartasunak dakartzan betebeharrak betetzea.

EAEtik kanporako bidaiari dagokienez, epaitegi eta auzitegiek behin baino gehiagotan eman dute euren iritzia gai horren inguruan.

Horrela jaso du Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko Epaitegiak urriaren 4an emandako 191/2012 sententzian. Zehazki, bere hirugarren zuzenbide-oinarrian honako hau adierazten du:

- *"que un viaje al extranjero de dos meses de duración no implica forzosamente cambio de residencia o cambio de domicilio habitual, que permanece y sigue siendo el mismo".*

Eta jarraian, laugarren zuzenbide-oinarriak zera adierazten du:

- *"la administración está vinculada por el principio de legalidad, de tal manera que si una norma le habilita y le faculta para retirar la ayuda ésta podrá y deberá hacerse efectiva, pero, si por el contrario no existe una norma que directa y claramente determine el cese de la asistencia, esta no podrá realizarse por meras sospechas..."*





Gainera, laugarren zuzenbide-oinarri horrek berak hauxe ezartzen du:

- *"la cual [en referencia a la normativa aplicable en la materia] no prohíbe ausentarse de España, ni resulta incompatible la ayuda social con abandonar el domicilio por espacio de dos meses, siempre que mantenga su empadronamiento y fijada su residencia en el mismo sitio"*

lido horretan, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko Epaitegiak orain dela gutxi –maiatzaren 12an– emandako 84/2014 sententziaren bidez, honako hau onartu du bere bigarren zuzenbide-oinarrian:

- *"Pues bien, xxx se encuentra empadronado en el Ayuntamiento de xxx desde el 27/9/2009, siendo que con anterioridad y desde 30/1/2009 estuvo empadronado en Vitoria, por lo que claramente cumpliría el requisito mínimo de tres años de empadronamiento que prevé el art. 16 b) Ley 18/2008; a lo que se debe añadir que no se puede acoger sin más y compartir con la administración que la residencia efectiva deba entenderse quebrada porque xxx, se haya ausentado de la CAPV durante tres meses en 2011, pues un viaje al extranjero de tres meses de duración no implica forzosamente cambio de residencia o cambio de domicilio habitual, que permanece y sigue siendo el mismo desde el 27/8/2009, y el cual se encuentra sito en la calle xxx especialmente si tenemos en cuenta que en el ejercicio 2011 xxx formuló la declaración del IRPF, lo que denota que tenía residencia habitual en Álava, y que desde 20/9/2009 era titular por cesión del contrato de arrendamiento sobre la vivienda en la que viene residiendo desde entonces."*

Bukatzeko, interpretazio bera jaso da, berriz ere, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. zenbakiko Epaitegiak maiatzaren 20an emandako 114/2015 epaian. Bertan, esanbidez aipatu da Arartekoaren 2013ko urriaren 15eko ebazpena, honako hau dioena:

- *"En consecuencia y como así sigue la recomendación del Ararteko, se ha de llevar a cabo una interpretación sistemática de la normativa"*





conexa con la de la renta de garantía de ingresos, para concluir que la residencia efectiva no se perdería en ausencias inferiores a los tres meses.

Así, en la resolución de 15 de octubre de 2013 del Ararteko, que no contradice la aportada por la parte actora, respondiendo al mismo criterio resulta que se estima que las salidas al extranjero periodos superiores a los tres meses, 90 días, pueden dar lugar a la pérdida de la residencia efectiva."

Are gehiago, Auzitegi Gorenak, doktrina bateratzeko hainbat kasazio-errekurtso ebazteko eman zituen epaien bidez, adierazi du² 90 egun baino gutxiagoko irtenaldiek ez dutela eragingo benetako bizilekuari lotutako baldintza galtzea.

5. Esan bezala, eskubidea aitortzeko eskaerarekin batera, erroldatze-agiria aurkeztu zuen kexagileak, baita pasaportearen fotokopia bat ere, lurraldetik irteteko eta bertara itzultzeko egunak adierazita.

Halaber, errentamendu-kontratua eta 2012ko irailetik 2014ko azaroaren 11ra bitarteko alokairuaren ordainagiriak ekarri zituen. Horretaz gain, aurkeztu zituen: 2012 eta 2013ko PFEZ aitopenak; goi mailako heziketa-zikloan matrikulatzeko eskaera bat, 2013ko uztailaren 4koa; eta beka ez-unibertsitario bat ematearen ziurtagiria, 2013ko apirilaren 2koa. Azkenik, aipatutako egunetan egindako banku-mugimenduen agiriak entregatu zituen, baita argindar- eta gas-hornidurarekin loturiko gastuen egiaztagiriak.

Are gehiago, esan bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuak, 2014ko ekainaren 25eko ebazpenaren bidez, diru-sarrerak bermatzeko laguntzarako eskubidea aitortu zion. Organo horren ustez, kexagileak betetzen zituen ekainaren 19ko 31/2012 Foru Dekretuan jasotako baldintzak, besteak beste, azken 12 hilabeteetan Gipuzkoako Lurralde Historikoan erroldatuta egotea eta benetan bizi izatea. Azkenean,

² Auzitegi Gorenaren 2014ko irailaren 22ko epaian (Doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsoa, 2834/2013 zenbakiduna) errepikatu da Auzitegi Gorenaren 2012ko urriaren 18ko epaian azaldutakoa (Kasazio-errekurtsoa, 4325/2011 zenbakiduna).



diru-sarrerak bermatzeko laguntza azkentzea erabaki zen, kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko baldintzak (EAEn erroldatuta egotea eta bertan bizi izatea) betetzen zituelakoan.

6. Espedientean dauden dokumentuek behar bezala egiaztatzen dute kexagilea benetan bizi dela EAEn, 2011/09/28az geroztik. Hortaz, Arartekoaren ustez, betetzen ditu abenduaren 23ko 18/2008 Legean jasotako eta azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutako 16. artikulua ezartzen dituen baldintzak, hau da, EAEn erroldatuta dago eta bertan bizi da. Hala ere, Lanbidek ukatu egin dio prestaziorako eskubidea.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, honako gomendio hau egiten dugu:

GOMENDIOA

Lanbidek berriz azter dezan diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidearen ukapena, egiaztatu baita kexagilea benetan bizi dela EAEn, 2011/09/28tik. Ondorioz, kexagileak gainerako baldintzak ere betetzen baditu, ondoriorik gabe utz dadila 2014ko abenduaren 20ko ukapen-ebazpena, eta prestazioak jasotzeko eskubidea aitor dakiola, eskaera aurkeztu zuen egunetik bizikidetz-unitateak prestazioaren onuradun izateko baldintzak betetzeari utzi zion egunera.

